



ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)

EUSKAL HERRIA
BASQUE COUNTRY



2019ko ekainaren 27ko Ezohiko Bilkura

2019KO EKAINAREN 27AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Berezia

Data: 2019-06-27

Ordua: Goizeko 12.30tan

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Elduain, 2019ko ekainaren 27a.

Idazkari-kontu-hartzailea

EGUNEKO GAI ZERRENDA

LEHENA.- Alkateordeen izendatzearen kontu ematea.

BIGARRENA.- Udalbatzaren batzar arruntak egiteko egun eta orduen finkatzea.

HIRUGARRENA.- Kontuetaarako Batzorde Bereziaren eraketa.

LAUGARRENA.- Batzorde txosten-emaileen eraketa eta osaketa.

BOSGARRENA.- Kide anitzeko organoetan parte hartzeko udalbatzaren ordezkariak izendatzea.



2019KO EKAINAREN 27KO

UDAL OSOKO BILKURA BEREZIA

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deia, 2019ko ekainaren 27a, goizeko hamabi eta erdietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziarekin.

Zinegotziak:

- Eider Mugica Ormazabal (12:30)
- Leire Talavera Etxeberria (12.30)
- Joel Wepsiec Mariezcurrena (12:30)
- Alain Barandiaran Ayerza (12.30)

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari - kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 12:30 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuak azterketari ekiten da.

LEHENENGO PUNTUA:

ALKATEORDEEN IZENDAKETAREN KONTU EMATEA

Azaroaren 28ko 2568/1986 E.D. onarturiko Toki Erakundeetako Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren (aurrerantzean AJE) 46.1 artikuluan xedatzen denaren arabera alkateordeak izendatuz ekainaren 22ko alkatetzaren 078/2015 Dekretuaz kontu ematen da, hau da:

- ❖ Lehenengo Alkateordea: Eider Mugica Ormazabal
- ❖ Bigarren Alkateordea: Joel Wepsiec Mariezcurrena



BIGARREN PUNTUA:

UDALBATZAREN BATZAR ARRUNTAK EGITEKO EGUN ETA ORDUEN FINKAKETA

Idazkari-kontu-hartzaileak, Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduak, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, 38.a) artikuluan xedatutakoaren berri eman du.

Adierazi du artikulua horren arabera, Udaltzaria eratzeko batzarra egin eta hogeita hamar eguneko epean ez ohiko bilkura deitu behar dela, besteak beste Udaltzaren osoko bilkuren maiztasuna erabakitzeke.

Jarraian Alkate Andreak Udaltzari honakoa proposatu dio: Udaltzarak ohiko osoko bilkura egitea hiru hilabetean behin, hileko azken astelehenetan, arratsaldeko zortzietan.

Lehenengo ohiko bilkura irailaren 30an egingo da.

Udaltzarak, aho batez, onartu egin du Alkateak egindako proposamena.

HIRUGARREN PUNTUA:

KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIAREN ERAKETA

BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORREN SORKUNTZA ETA ERAKETARAKO PROPOSAMENA

Idazkari-kontu-hartzaileak Toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduak, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, 38.a) artikuluan xedatutakoaren berri eman du. Adierazi du artikulua horren arabera, Udaltzaria eratzeko batzarra egin eta hogeita hamar eguneko epean ohiko edo ezohiko bilkura deitu behar dela, besteak beste informazio batzorde iraunkorrak sortzea eta horien osatura erabakitzeke.

Ondoren Alkate Andreak Batzorde Informatzaile iraunkorren sorkuntza eta eraketari buruzko proposamenaren berri ematen du:

<i>Batzordearen izena</i>	<i>Kideen zenbatekoa</i>
Batzorde Informatzailea Orokorra	5

Batzorde honek apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116 artikulua xedaturiko Kontuetarako Batzorde Bereziari dagozkion gaiak bere gain hartuko ditu.

Hori dela eta, Udaltzariak **ERABAKITZEN DU:**

BAKARRA.-



Batzorde informatzaile iraunkorrak sortzeko Alkateak eginiko proposamena onartzea.

LAUGARREN PUNTUA:

KIDE ANITZEKO ORGANOETAN PARTE HARTZEKO UDALBATZAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA

Idazkari-kontu-hartzaileak azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren, toki-erakundeen antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duenaren, 38.c) artikulua xedatutakoaren berri eman du. Adierazi du artikulua horren arabera, Udalbatza eratzeko batzarra egin eta hogeita hamar eguneko epean ohiko edo ezohiko bilkura deitu behar dela, besteak beste kide anitzeko organoetan parte hartzeko ordezkariek izendatzeko, Udalbatzaren eskumenekoa denean.

Alkate Andreak, ondoren, Udalak parte hartzen duen erakundeen estatutuak aintzat hartuta, honako proposamena bozkatzeko dei egin du:

Erakundea	Ordezkaria	Ordezkariordezkaria
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	Joel Wepsiec Mariezcurrena	Leire Talavera Etxeberria
TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA ELKARTEA	Alain Barandiaran Ayerza	Oihana Amundarain Zubillaga
TOLOSALDEKO HILTEGIA	Eider Mugica Ormazabal	Leire Talavera Etxeberria
TOLOSALDEA GARATZEN	Oihana Amundarain Zubillaga	Eider Mugica Ormazabal
ZABORTEGI AMANKOMUNITATEA	Oihana Amundarain Zubillaga	Eider Mugica Ormazabal
GIPUZKOAKO BASO ELKARTEA	Alain Barandiaran Ayerza	Joel Wepsiec Mariezcurrena
TOLOSALDEA TOUR	Eider Mugica Ormazabal	Joel Wepsiec Mariezcurrena
BERRIA BERRI, GALTZAUNDI ETA PRENTSA BULEGO BEZALA	Oihana Amundarain Zubillaga	Leire Talavera Etxeberria
UDALBILTZA	Alain Barandiaran Ayerza	Joel Wepsiec Mariezcurrena

Eta besterik gabe, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, goizeko 12.50 ordu zirenean.

Elduainen, 2019ko ekainaren 27a.

O.E.
Alkateak,

Udaleko idazkari - kontu-hartzailea,

Oihana Amundarain Zubillaga,

Maria Pilar Garmendia Miguel